

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bernardo Anabitarte Ezeiza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Garrostegi baserrian jaio zen, Loiolan (Altza, garai hartan). Hiru senide ziren, eta gazterik geratu ziren umezurtz. Aita Astigarragakoa zen, eta Pasaiaiko portuan egiten zuen lana; ama Intxaurrondokoa, Arjel Etxeberri baserrikoa. Haraxe joan ziren bizitzera, izeba-osabekin. Bernardo umetatik trebatu zen baserriko lanetan. Martuteneko eskola publikoan ibili zen, eta 13 urterekin osabaren janari-dendan hasi zen lanean; iluntzean eskola partikularretara joaten zen, Loiolara. Osabak ardo eta likore-denda ere jarri zuen, Donostiako Prim kalean, eta hantxe hasi zen hogei urte zituela. Orain ere Ezeiza ardandegian dihardu lanean. Grosera ezkondu zen, eta bi seme-alaba ditu. Ehiza du afizio. Arjel Etxeberri baserria bota egin zuten, Intxaurrondoko beste hainbat baserri bezalaxe, 1979ko desjabetzeen ondorioz; kuartela dago orain han.

Zintak

DON-089

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-03
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

DON-154

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. 13 urtetatik lanean

- **Erref:** DON-089/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Umezurtz geratu, eta Arjel Etxeberri baserrira joan ziren bizitzera, izeba-osabekin. 13 urterekin osabaren janari dendan hasi zen lanean, Intxaurrondon. 19 urtetatik ardo eta likore dendan dihardu lanean. Aita Astigarragakoa, ama Arjel Etxeberrikoa.

2. Osabari baserriko lanetan laguntzen

- **Erref:** DON-089/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Garrostegi baserria eta ingurua nolakoa zen. Loiolara joaten ziren, eta gero Intxaurrondora. San Martin plazara joaten ziren Arjel Etxeberrikoak. Baserriko lanak.

3. Eskolara Martutenera

- **Erref:** DON-089/004
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garrostegitik Martutenera joan zen eskolara, Sarroeta eskola publikora. Don Mariano maisua. Lanean hasita, Loiolara joaten zen eskola partikularra hartzera, Txominenera.

4. Amona zestoa buruan zuela

- **Erref:** DON-089/007
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Garrostegiko kontuak. Aitak Pasaiaiko portuan egiten zuen lana. Oinez joaten zen. Meningitisekin hil zen. Ama, berriz, pulmoniarekin. Hiru senide ziren. Aitona-amonak. Zestoa buru gainean. Abereak.</p>

5. Txoritan mutikotatik

- **Erref:** DON-089/008
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:12:43. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Mutikotako lanak baserrian. Simaurra, jatena. Abereak. Txerriak. Oiloak. Ehiza txakurra. Osaba Luisek postua zeukan zuhaitz batean. Tortoiloak, oilagorrak... plazan saltzen zituzten. Erreklamoak. Birigarroa zuten kaiolan.

6. Erreklamoan ere bai

- **Erref:** DON-089/009
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Erreklamoan ere ibiltzen ziren. Debekatua zegoen. Birigarroa zuten kaiolan. Lehenengo eskopeta. Tortoiloa bota zuen.

7. Jaunartzea, Altzako parrokian

- **Erref:** DON-089/012
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Dotrina eskolan ematen zuten, eta azken egunetan Altzako parrokiara.

Jaunartzea bederatzi urterekin egin zuen hamaikarekin egin orde. Don Felix eta Don Cornelio. Mezara Atotxara. Marrubiak batzen. Monagilo ibili zen, mojekin.</p>

8. Loreak, berdurak eta fruta

- **Erref:** DON-089/017
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Zein lore saltzen zituzten. Berdurak. Fruta. Hernanira feriara. Txertatu egiten zituen osabak fruta arbolak. Otxokira eramaten zuten sagarra, sagardoa egiteko. San Martin azoka. Lera.

9. Baserriko tresnak

- **Erref:** DON-089/018
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Baserriko tresnak. Goldea, aitzurra, aizkora... Egurra mozten. Ura errekatik igotzen zuten. Argia beti ezagutu du.</p>

10. Txerria eta odolkiak

- **Erref:** DON-089/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:31:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Txerria Altzako batek hiltzen zuen. Izebak-eta egiten zituzten odolkiak. Elkarri laguntzen zioten baserritarrek. Familian partitzen zuten txerria.</p>

11. Lehengo Intxaurrondo

- **Erref:** DON-089/022
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:31:33. **Bukatu:** 00:35:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Osabak janari denda zuen Intxaurren. Enkarguak partitzen. Hiru-lau denda zeuden, harategia... Dendan zer saltzen zuten. Olio. Pisura.

12. Ardo dendan nola hasi zen lanean

- **Erref:** DON-089/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>13 urterekin iluntzean eskolara, eta gero 19rekin Ezeiza ardo dendan hasi zen, lehengusua soldadu joan zenean. Hamabi ordu egiten ditu dendan, lehen osabak bezalaxe.</p>

Transkripzioa

- Juten zifan gauez ikaste... ikastera?
- Bai.
- Garai hortan.
- Txomifenea.
- Txomifenea. Eta han zein zan maixua edo maistria?
- Valenzianua bazan. "Valenciano". Matrimoniya eta hara juaten gihan, eta han gabian... eztatik ze ordutan... zortzietan o ordubete juaten gihan hara ta...
- Ta ze ikasten zenuten? Kontuak eta?
- Kontuak eta bai... Ni ez naiz ya...
- Eta gero, noiz hasi zifan zu e... ardo ta likore dendan lanian?
- Handikan... Hamahiru urtekin juan nitzan, eta geo hemen lehengusua, soldadu hemen zeona soldadu juan zan ta ni hemeretzi hogei urte o honea etorri nitzan. Nire lehengusua soldadu juan zan, ta orduan, ni honea etorri nitzan. Ya denda saldu zun. Utzi zun osabak, eta ya hara ta honea bietan ezin zan eon, ta honea etorri nitzan. Hemen segitzen det "¡al pie de cañon!". Ya hogei urte da osaba hil zala, ta osabak lehen hemen bazkaltzen zun, t nik esaten nun "jo, hau ez dek /eztek/ aspertuko egunero bazkaltzen hemen?". Hogeitaz falta dala, hogei urte bazkaltzen detala / bazkaltzetala/ nik hemen! Ta ordubateetik lauta xoxak iten dia. Eon biharra dao.
- Batez e goizeko zortziretatik arratzaldeko zortzirak arte.
- Hamabi ordu sartuta hemen.

13. Osabaren denda, aspaldikoa

- **Erref:** DON-089/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:36:43. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Osabak denda erosi zuenean, bi denda bat egin zituen. Lehen zein likore saltzen ziren. Askoz gutxiago zeuden. Frantsesekin egiten zuten lana. Barrikak.

14. Dantzara nora joaten ziren

- **Erref:** DON-089/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:41:19. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Igandetan festetara. Irubide, Oilaluma. Lasarte. Erreteriatik Irunera. Amarako dantza.

15. Arjel Etxeberri bota egin zuten

- **Erref:** DON-089/033
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Arjel Etxeberri baserria nola galdu zen. Bidagor plana. Intxaurrondon baserri mordoa bota zituzten. Metro koadroa 40 pezetara.</p>

Transkripzioa

- E baserriya Arjel...
- Arjel Etxeberri...
- Arjel Etxeberri hori noiz e... noiz desagertu zan? Edo nola galdu zan?
- Nola kendu zuten?
- Bai.
- "El Plan Bidagor". Eztakit zenbat basarri bota zuten hor. Denak! Guardia zibillak etorri... atetikan ganaua ateatzen eta bestetikan basarriya botatzen. "El Plan Bidagor" Francon denbuan ordun... bota zuten... eztakit zenbat basarri bota zuten. Mordoxka bai.
- Hogeita piku. Hogeita...

- Ba, dena. Erriyua, erritxulo bat zen [...] ta handikan Intxaurrondo bitarteko basarri guztiyak fuera!
- Nahi ala nahi ez kanpora.
- Ordun, zan "El Plan Bidagor". Ordun terrenuak "cuarenta, cuarenta pesetas el metro cuadrau y a la calle. El que quiere piso a Bidebieta 1 allá en los... en la paz. La paz". Hara.
- A bai e?
- Ta ordun osabak Intxaurrondo billatuazi zun [...] ta basarritikan billa juan giñan.

16. Intxaurrondon desagertutako baserriak

- **Erref:** DON-089/035
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:46:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Intxaurrondon desagertu ziren baserrien izenak esaten ditu. Arjel Etxeberri nola bota zuten.</p>

Transkripzioa

- Arjel Etxeberri ta zer baserri gehiyo zeuden lehen orain ez daudenak / eztaudenak/?
- Hemendikan, kanposantutik jun ta gora zauden Tuniz, Tuniz-berri, Baratzategi, Otsoki, Arrues, Arjel, Arjel Haundi, Arjel Txiki, Basotxiki, Sagastieder... Lizardi, Fabrika basarriya baten izen du... Fabrika... zenbat basarri. Dena bota zituen.
- Ta ze fabrika zeon ba?
- Basarriya bat izena zuna Fabrika.
- A...
- Hue Herreraako birian zuluana... Casa Fabrika esaten zioten.
- Eta zuen hori re Arjel horrek e...
- Fuera. Dena bota zituen. Geo, aurreneko... terreno hoitan in zutena gure osaben ta terrenon, basarriyan "la barraca de la guardia civil". Hantxe in zuen. Ta geo handik gora... denbora askuan in gabe, in gabe, in gabe... Etxian unian platano haundi bat zeon basarriyan aurrian... hua azkenenkua bota zuten "que si que no hacer...". Gau batian juan zian, zuhaitza moztu zuten hala "pa' hacer otra casa". Ta goiko aldian, alkaziak eta dena, dena... fuera! Dena fuera bota zuten!
- Ez baserri, ez txori ez ezer.
- Ez, ez, ezer ez ya...

17. Kantu eskea, San Juan, Erramu Eguna...

- **Erref:** DON-089/039
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:48:59. **Bukatu:** 00:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Gabonetan baserriz baserri joaten ziren kantuan. Panderetarekin. Martuteneraino. Dirua partitu. San Juan sua. Pazkoa berrian osabak tiroak botatzen zituen airera. Erramu Eguna eta gurutzeak. Lizarra.</p>

18. Eguzkiari eta ilargiari begira

- **Erref:** DON-089/040
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:52:18. **Bukatu:** 00:54:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Tenporak. Ilargiaren eta eguzkiaren garrantzia. Ordularirik ez. Ilea moztea. Baratzea.</p>

Transkripzioa

- Ohiturak bazauden ordun. Oain dena aortu da. Goizian igual... gabian tenpora denbuan, osaba [juaten zan] igual tenporak argiya, illargi berriya, gabeko hamarretan-hamaike-hamabitan atea ta leihyoa atea ta "aber ze egualdiya daon?". Dana tenporakin giatzen zian ordun e... Ordun ez zekiten /etzekiten/ ze egualdiya ta ze... Igual zugaitzak moztutzeko re e... illargiya iyotzen ai dan o jaixten ai dananian desberdiñak dia. Batzan e eoten zianian lanian han ez zanon /etzaon/ errelojuikan e ordulaikan! Erreparatzen orduai... "ba, bazkaltzeko garaya dek! Martxa". Zea... iuzkiyakin giatzen zian basarri zea... mendiyan!

- Eta illargiyak ere bazeukan hori baratzeko lanetarako...

- Bai, bai, bai. Haziya botatzeko ta bai. Illargiya o iyotzen dabillen. Gehiyena "cuarto menguante" bihan, jeixten... illargiya bete eta jeixten hasten danian ordun haziya botatzeko ta diferentziya da.

- Eta illia mozteko eta ere bai?

- Urdun eztakit. Uain esaten dute que indar gehiyo "cuarto menguate" indarra... illia moztutzeko indarra gehiyo... Nik, hara! Zain no moztutzeko! Datorren astian ya... Jayian zan "luna llena" beti moztutzen det jeisten ai danian. "Los cuatro pelos que hay pa' que aguanten".

- Eta hori, hori betidanik ezautu dezu?

- Lehen ez zuten /etzuten/ oain... lehen, lehen, lehen zuhaitzena... illiana ez, baño...

- Zuhaitzena bai?

- Haziya botatzeko ta igual o letxuga haziya bota ber da o bestela o tipula... illargiyakin dena e! Orduan fedia zekaten osabak e! Gabeko hamabitan "aber ze haize don, ze nola ateatzen don, nondik jotzen don haizia, euriya daon, oin euzkiya... Zeatikan tenporak eta horri giatzen zian asko gañeaz e!

19. Etxeko otoitzak eta bedeinkazioak

- **Erref:** DON-089/041
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:54:06. **Bukatu:** 00:57:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Arrosarioa. Ama Birjina baserriz baserri. Artoa eta ogia bedeinkatzera joaten ziren, Atotxara. Norbait hiltzean, Altzan kanpaia jotzen zuten.</p>

20. Perratzailea etxeraino

- **Erref:** DON-089/042
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:57:13. **Bukatu:** 00:58:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Perratzailea, Intxaurrondon. Etxeraino joaten zen.</p>

Transkripzioa

- Eta perratzailliana juten ziñaten? Bazeon perratzaillerik han inguru hortan?
- Bai, bertan jaten zan hara e! Intxaurrondo bazeon bat ta deitu ta perratzea. Zaldua Donostiano etortzen zan. Hoi ya gaizto, maizo in bihar perratu. Eta gañeakuan hanko behiyak eta perratu gutxi iten zian zeatik han etxitikan etxian zea... barku, sukalde zea... ikullutikan atia ireki eta bueltan zeon aska haundi bat urakin ta... Goizian ireki ta tapa-tapa beak behiyak juaten zian eaten zuten, eta bere lekuta sartzen zian. Bazakiten beak... ez zean nahastutzen e! Hamar zulo... bazakiten beria zuan zan. Zuzenian hara sartzen zian. Han katiakin lotu eta lixto.
- Orduan perratzaillia e...
- Berta basarrira juten zan.
- Etxez etxe.

21. Bizikletan enkarguak partitzen

- **Erref:** DON-089/046
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 00:59:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Lehen, auto gutxi. Tranbia. Bizikletan enkarguak partitzen.</p>

Transkripzioa

- Eta lehengo... lehen e berebillak eta gutxi egoten ziran.
- Jolin.
- Eta...
- Lehenoa...
- Hemen tranbia ta... ez? Zeuden...
- Hemendik pasatzen zan tranbia.
- Hemendik pasatzen zan?
- Bai, hemendikan tranbia. Ta hemen enparguak hemen partitzen txirrindekin ibiltzen giñan, eta orduan ibili bihar izaten zan kontuz zeatikan e... pasatzen zan trena, tranbiak ta aurreneko baten perrille pasatzeko eta ez paezun trabeska pasatzen... hola kostau hartu ezkeo perrilla sartzen zan barrenen ta apapa! Lurrea! Jolin, ni ta... hemen barrena. Ta gañea, pasatzen zanian mobilla, botillak klin-klin-klin moitu izaten zian. Moitu harrenkin ta...
- Bai?

22. Zaldiak bazekien bidea

- **Erref:** DON-089/048
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:00:37. **Bukatu:** 01:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Intxaurrondotik zaldi-karroan ala oinez. Astorik ez du gogoan. Zaldiak bazekien bidea.</p>

23. Esnea partitzen

- **Erref:** DON-089/050
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:02:10. **Bukatu:** 01:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Esnea partitzen ibiltzen ziren. Egiako emakume batentzat aparte gordetzen zuten esnea, alabarentzat.

24. Izeba errekan arropa garbitzen

- **Erref:** DON-089/052
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:04:39. **Bukatu:** 01:06:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Baserrian, beti lana. Arropa karretilan, errekarara. Hankak uretan sartuta. Egurrezko sukaldea. Irratia.

25. Baserriko otorduak eta sagardoa

- **Erref:** DON-089/054
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:07:25. **Bukatu:** 01:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Baserriko otorduak. Babarrunak. Kafea, anisarekin. Sagardoa txarrotik. Gero, botilaratzen hasi ziren. Eskilarapean. Sagardogintza.

26. Baraualdiak

- **Erref:** DON-089/056
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:10:31. **Bukatu:** 01:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ogiari gurutzea eta musu, moztu aurretik. Baraua egiten du orain ere. Jauna hartzeko baraurik, lehen. Maliziarik ez zutela dio.

27. Ubako Ama Birjina

- **Erref:** DON-089/058
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:12:45. **Bukatu:** 01:15:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Ametzagainan Ubako Ama Birjina nola azaldu zen. Ama Birjina ikustera joaten ziren urtero. Reformatorioa. Loaren Ama Birjina da. Lasa frantziskotarra. Santa Kruz egunean, mezara.</p>

28. Errazionamendu garaiko kontuak

- **Erref:** DON-089/062
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:18:04. **Bukatu:** 01:20:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Altzara joaten ziren errotara. Irina. Etxean egiten zuten taloa. Goserik ez zuten pasatu. Errazionamendua. Tabakoa. Ogia.

29. Belar metan zigarro erretzen

- **Erref:** DON-089/064
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:21:16. **Bukatu:** 01:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Zakar bila nora joaten ziren, behiekin. Gaztetan, zigarro erretzen egoten ziren belar metan. Arto bizarrak.</p>

30. Denda, barrutik ikusita

- **Erref:** DON-089/067
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:24:23. **Bukatu:** 01:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Dendaren barruko aldea erakusten dabil. Likoreak. Kanilatik betetzen ziren botilak. Barrikak. Inbutuak.

31. Egurrezko kaxak

- **Erref:** DON-089/069
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:26:39. **Bukatu:** 01:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Botilak batera eta bestera eramateko egurrezko kaxak erakusten ditu.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com